



Beasaingo Udala

ESP. KODEA.	2017IDBO0020
EXPEDIENTEA	
TITULARRA	BEASAINGO UDALA
TOKIA	

BEASAINGO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDUKO EGITASMO OROKORRA IDAZTEARI
BURUZKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA.

Beasainen bi mila hemezortziko urtarrilaren hogeita hamaikan.

BILDURIK

Alde batetik, **AITOR ALDASORO ITURBE**, Beasaingo Alkate-Lehendakari jauna. Ekintza hau burutzeko eskumena Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 21'1 b) artikulua nahiz 2017ko azaroaren 30ean Gobernu Batzordeak akordioak, ematen dio.

Bestetik, **AGUSTIN ERREA OYARZABAL** jauna, adinez heldua eta [redacted] adinez heldua eta Pasai San Pedro, Portuene klean, 19- 3. D atea, helbideratua, ondorengo enpresaren ordezkari gisa: "SABAI ARKITEKTOAK, SLP." (IFK, B20775011). Ekintza hau burutzeko eskumena, Hernanin 2008ko maiatzaren 7an, Francisco Ignacio Romera Pedrosa Notario jaunaren aurrean sinatutako eskriturak ematen dio.

AURREKARIAK

1.- 2017-07-20. Gobernu Batzordeko erabakia, prozedura irekiaren bitartez, deialdi publikoa eginez eta baldintza administratibo nahiz teknikoak onartuz, helburu hauetarako:

BEASAINGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO

Lizitazio prezioa: 340.000,00 € + BEZ

2.- 2017-07-25. EAO deialdia argitaratzea.

3.- 2017-07-26. EEAOean deialdia argitaratzea.

4.- 2017-08-03. GAOean deialdia argitaratzea

5.- 2017-09-29. Proposamenak aurkezteko epea.

6.- Lizitaziora aurkeztutako lizitatzailleak:

	DATA	ERREGISTRO ZENBAKIA
SABAI ARKITEKTOAK, SLP	29-09-2017	3873
NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS	29-09-2017	3875



Beasain Udala

7.- Lizitaziora aurkeztu ziren bi lizitatzaileren A kartazalen dokumentazioa kalifikatu ondoren, bi lizitatzailerei dokumentu osagarriak errekeritzeko beharra ikusi zen. Dokumentazioa osatu ondoren, biei onartu zitzaizen lizitazioan parte hartzea.

8.- B kartazalak ireki ondoren, Adituen Batzordeak aztertu eta baloratu zituzten. Eraitza ondorengoa izan zen:

	MEMORIA-DIAGNOSI A (45 puntu)	METODOLOGIA REN PROPOSAMENA (25 puntu)	HERRITARREN PARTAIDETZA (10 puntu)	GUZTIRA (80 puntu)
SABAI ARKITEKTOAK	42	14	8	64
NIKOLAS BARANDIARAN	34	20	9	63

9.- C kartazalen eraitza berriz, ondorengoa izan zen:

Lizitatzailerek	Proposamen ekonomikoak
NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS	323.000,00 €, BEZ gabe
SABAI ARKITEKTOAK, SLP	300.000,00 €, BEZ gabe

10.- B eta C kartazaleetako puntuak batu ondoren, lizitatzailerek lortutako puntuazioa ondorengoa izan zen:

Lizitatzailerek	B kartazalaren balorazioa	C kartazalaren balorazioa	Puntuak guztira
NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS	63	8,50	71,50
SABAI ARKITEKTOAK, SLP	64	20	84

11.- Gobernu Batzordeak, 2017-11-23ko Kontratazio Mahaia egindako proposamenaren arabera, 2017-11-30eko datarekin, erabaki zuen:

- Puntu gehien lortutako lizitatzaileri zerbitzua esleitzea.
- Errekerimendua egitea adjudikazioduna proposatutakoari hainbat dokumentazio aurkezteko, jarraian behin betiko esleipena egiteko, horretarako baimena Alkateari emanaz.
- Udal arkitekto zerbitzua ematen duen, Aitziber Olarte Bidauzarraga andrea izendatzea, kontratuaren zuzendaritza eta ikuskapena burutzeko.

12.- Adjudikazioduna izateko proposatutakoak, TRLCSParen 151.2 artikulua aipatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren, Alkatea jaunak 2017-12-29ko data duen Ebazpena eman zuen behin betiko esleipena eginez. Horren jakinarazpena bidali zenetik (2018-01-09), 15 laneguneko epea igaro da, baina lizitazioak parte hartu zutenek inolako kontratazio gaitetako



Beasaingo Udala

errekurtsorik aurkeztu ez dutenez, zilegi da esleipendunaren alde kontratua egitea (TRLCSParen 156.3 artikulua).

13.- Baldintza Plegu Administratiboaren arabera (22. artikulua), bi aldeek ere kontratuak egiteko eta betetzeko duten ahalmena elkarri aitortu diote, eta bi aldeek dituzten eskubide eta betebeharrak arautzeko, kontratu hau egiten da, ondorengo

KLAUSULEKIN

Lehenik. Helburua. SABAI ARKITEKTOAK, S.L.P.ek, Beasaingo udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko konpromisoa hartu du, beti ere Gobernu Batzordeak 2017-07-20an onartutako baldintza plegu administratibo eta teknikoaren arabera eta berak 2017-09-29an aurkeztutako eskaintzaren arabera. Hiru azken dokumentu hauek ere kontratuzko izaera izango dute.

Horretarako, baldintza administratibo pleguaren 22. artikulua eskatuta, kontratistak aurkeztutako eskaintzaren arabera, ekipoan parte hartuko duten profesionalak hauek izango dira:

- Zuzendaria: Agustin Errea Oyarzabal, jauna.
- Arkitektoa: Luciano Pagaegi Bilbao, jauna.
- Aholkularitza juridikoa: Juan Landa Mendibe, jauna.
- Ingurugiro teknikariak:
 1. Raoul Servet Martin, jauna.
 2. Elena Alonso Zapirain, andrea.
 3. Iosu Muñiz Esnal, jauna.
- Ingeniaria: Pedro M^a Azkue Elozegi, jauna.
- Topografiako teknikaria: Xabier Garaikoetxea Arin, jauna.
- Komunikazioko teknikaria: Karmentxu Intxaurreaga Garcia, andrea.
- Gizarte izaerako betebeharrarako teknikaria: Haizea Etxebarria Zelaia, andrea.

Taldeko profesionalen bat ordezkatu beharko balitz, ordezkapena Udal honen aurrean proposatu eta justifikatu beharko da. Udalak balioetsi egingo du eta, soilik aldaketa egokitzen jotzen badu, onartu egingo du.

Taldeko zuzendaria plan orokorra eratzeko lanetan kalitatea ziurtatzeko elementu funtsezko eta oinarritzakoa da, eta udal zerbitzu teknikoekin etengabeko harremana izan beharko du. Hala, zerbitzua behar bezala betetze aldera, eskatzen zaion aldiro udal bulegoetara bertaratu beharko da, gutxienez, hamabostean behingo maiztasuna finkatuz.

Erredakzio taldearen eta udalbatzaren arteko koordinazioa eta harremanak.

Kontratistak konpromisoa hartzen du aldizka harremana izateko Udalak Beasaingo Hiri-antolamendurako Plan Orokorra idatzi eta eratzeko eragiketa orokorraren barnean sartzen diren fase eta lan guztietan koordinatzaile/zuzendari modura izendatutako langilearekin (11. aurrekarian eginda horren aipamena), lana udal ikuspegitik hobea eta osatuagoa izateko egin daitezkeen iradokizunak jasotze aldera. Udalbatzarekin batera bertaratu da bilkura eta bisitetara eta iradokizunak idatzi eta izapidetzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo ditu.





Beasain Udalak

Udaleko Lurralde Batzordeak lanaren garapena ikuskatuko du. Horretarako, kontratistak lanen egoerari buruzko azalpenak emango ditu Batzordeko Presidenteak deitutako saioetan, udaletxean egingo direnak.

Kontratistak konpromisoa hartzen du asteen behin, bulego-orduetan eta udaletxeko dependentzietan, jendeari harrera egiteko plangintzaren aurrerakinaren dokumentua, balioespen eta iradokizunak jasotzekoa, hasierako onarpenaren dokumentua eta behin betiko onarpenaren dokumentua idazten diren bitartean.

Bigarren. Egikaritze epea. Kontratuaren egikaritze epea berrogeita sei hilabetekoa izango da kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta ez da egongo luzatzeko aukerarik.

Hirugarren. Prezioa. Beasain Udalak bere aldetik, SABAI ARKITEKTOAK, S.L.P. enpresari HIRUREHUN MILA EURO (300.000,00 €) gehi BEZri dagokiona ordainduko dio. Guztira, HIRUREHUN MILA eta HIRUROGEITA HIRU EURO (363.000,00 €). Ezinezkoa izango da prezioa berrikustea.

Ordainketa kontratua sinatzean egingo da eta hurrenez hurreneko lanen entrega partzialen ondotik, jarraian adierazitako portzentajeetan:

- 1.- % 5 administrazio-kontratua formalizatzean.
- 2.- % 15 lehen faseari dagokion dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren.
- 3.- % 10 bigarren faseari dagokion dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren.
- 4.- % 5 hirugarren fasea burutu ondoren.
- 5.- % 35 laugarren faseari dagokion dokumentua entregatu eta onartu ondoren.
- 6.- % 5 bosgarren faseari dagozkion lanak entregatu eta onartu ondoren.
- 7.- % 5 seigarren faseari dagokion dokumentua entregatu eta onartu ondoren.
- 8.- % 10 edo, hala badagokio, % 15 informazio publikoa berriro egitea beharrezkoa izan ez bada, zazpigarren faseari dagokion dokumentua egin eta onartu ondoren.
- 9.- Gainerako zenbatekoa administrazio-bidea erabiliz Planaren behin betiko onarpenaren aurka jarritako balizko errekurtsoen txostena egin ondoren edo haiek jartzeko epea igaro ondotik ordainketako da.

Ordainketa legezko epeetan egingo da, behin fakturek teknikariaren eta dagokion kargu politikoaren oniritzia jaso ondoren.

Prezioan aleak editatzeko gastuak, koadernatzeko gastuak, kopiagintzakoak, digitalizaziokoak eta itzulpenekoak sartuko dira, nahiz lanak egiteko beharrezkoa den beste edozein gastu eta baita era guztietako joan-etorrietako gastuak ere.





Beasaingo Udala

Indarreko Arau Subsidiarioak Berrikusi eta Egokitzeko dokumentua eratu eta izapidetzeko epealdian zehar horietan hirigintza-garapena hobetzeko erregulazioak edo Plan berriaren plangintzako irtenbideak gaineratzeko xedez uneko aldaketak izapidetu beharko balira, eta Udalbatzak ebazten badu horiek kontratu honen esleipendunak egitekoak izango direla, esleipendunak ordaina jasotzeko eskubidea izango du soilik aldaketa-espeditenteak betetzeko ezinbestekoak diren lanengatik, baldin eta berrikusitako Arauen dokumentuan zuzenean gaineratu ezin badira. Hauek dira informazio modura aipatzen diren lanak: mekanografia lanak, dokumentuak karpeta eta koadernotan jartzekoak, horien kopiak egitea, etab.

Laugarren. Lizitazio gastuak. Kontratatik, aldizkari ofizialetako lizitazioa gastuak ordainduko ditu, hain zuzen ere: 1.195,73 €.

Bosgarren. Kontratuaren lagapena. Kontratua lagatzeari dagokionez, TRLCSParen 226. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Seigarren. Betebeharrak. Baldintza pleguaren 9. eta 10. artikuluan adierazten den moduan, Kontratista:

- Lan arloan, gizarte segurantzaren, eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera behartuta dago.
- Izango da kontratua gauzatzean egin beharreko lanen ondorioz sorrarazten diren kalte eta galeren erantzulea, SPKLTBko 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarren. Kontratuaren aldaketa. Administrazioak aukera izango du kontratua aldatzeko, interes publikoko arrazoiak, premia berrien edo ustekabeko arrazoiak ondorioz, eta kontratatik ez du kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik izango.

Zortzigarren. Zigorrak. Kontratua ez betetzearen ondorioz, kontratatari ezarri daitezkeen zigorrak, baldintza plegu administrazioaren 13. artikuluan ezarritakoak izango dira.

Bederatzigarrenak. Kontratua etetea. Zerbitzuen kontratua eteteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 223 eta 308 artikuluetan ezartzen direnak.

Hamargarrena. Dokumentazioa aurkezteko formatoa:

Dokumentazio osoa (txostenak, azalpenerako dokumentuak nahiz hedatzeko dokumentuak barne) paper formatuan nahiz formatu digitalean entregatu beharko da.

Idatzizko dokumentazioa eta azterketa osagarriak formatu editagarrian aurkeztu beharko dira (Word, Excel edo azterketak idazteko, erabiltzeko edota aztertzeke beharrezkoa litzatekeen beste edozein formatutan), eta PDF formatuan ere bai.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian (dwg), PDF formatuan eta GIS (Shape) formatuan aurkeztu beharko da, egokitze jotzen den faseetan.

Dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko da, zutabe bikoitzean.

Kontratataren aldetik eta bere eskaintza ekonomikoaren barruan, aurretiaz dagoen kartografia eguneratu beharko du, aurretiaz dagoen geruzen eskema mantenduz, eta hiri-eremuetako edota urbanizagarrietako informazio takimetrikoa jasoz (aurretiaz daudenak nahiz etorkizuneko plan orokorrean aurreikus daitezkeenak), eta egungo kartografian dagoen xehetasun berarekin.



Beasaingo Udala

Planoak ETRS89-UTM30 koordinatuekin bat etorriko dira, eta erreferentziatzko oinarriak berrezarri edota areagotu egingo dira.

Koordenatuen arabera identifikatuko dira udalerria zedarritzeko mugariak eta, beharrezkoa bada, horiek lursailetan kokatuko dira.

Dokumentazio guztian hizkuntza ez sexistaren tratamendu egokia bermatuko da, indarreko xedapen eta araudiarekin bat etorritik.

Honakoa izango da entregatzeko kopia kopurua orientagarria, paperean eta euskarri digitaletan:

1. Ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren prozedura abiatzeko hasierako dokumentua: 5 kopia
2. Aurrerakinaren dokumentua, ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena barne: 5 kopia
3. Iradokizunak balioesteko eta herritarren partaidetzarako prozesua aztertzekeo dokumentua: 3 kopia
4. Hasierako onarpenaren dokumentua, ingurumen arloko memoria txertatzeko dokumentua barne: 5 kopia
5. Arrazoibideak balioesteko dokumentua eta herritarren partaidetzarako prozesuari buruzko laburpen dokumentua: 3 kopia
6. Behin-behineko Onarpenerako Agiria: 5 kopia
7. Behin betiko Onarpenerako Agiria: 5 kopia

Dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dira, zutabe bikoitzean.

Erredakzio taldeak Plan orokorra eratzeko prozesuan igorritako txosten, irizpen eta bestelako dokumentuak bikoiztuta entregatu beharko dira, paperean eta euskarri informatikoan.

Dokumentazioak Udalean aurkezten den unean indarrean legokeen legeriak une bakoitzean eskatzen dituen betekizunak bete beharko ditu.

Hamaikagarrena. Harrera eta berme epea. Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta, gehienez, hilabeteko epean, haren harrerarako ekitaldi formal eta positiboa egingo da Ekitaldira kontratuaz arduratzen diren udal langileak eta kontratista bertaratuko dira eta udal kontu-hartzailetzari dagokion jakinarazpena egingo zaio, egoki irizten badu, ekitaldira bertara dadin, egokia den Harrera-akta taxutuz.

Onarpen formala egiten den egunetik hasita urte bateko epea ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako bermetzat.

Berme-epe honetan kontratista izango da burututako lanaketa edo prestazioetan sor daitezkeen akats edo kalteen erantzule.

Epe hori Administrazioaren aldetiko inolako ohartarazpenik gabe igarota, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat emango da.

Hamabigarrena. Lanen jabetza. Kontratua gauzatzen den artean egindako ikerketa eta dokumentu guztiak Udalaren jabetzakoak izango dira. Hala, haiek erreproduzitu, argitaratu edo hedatu ahal izango ditu, osorik edo partzialki, lanak burutu dituen esleipendunak aurka egiteko eskubiderik izan gabe.



Beasaingo Udala

Esleipendunak ezingo ditu kontratuaren gauzapenean egindako ikerketa eta dokumentuak erabili edo hedatu, ez osorik ezta partzialki ere, ez zuzenean ezta laburtuta ere, baldin eta kontratazio organoaren baimenik ez badu.

Kontratuaren helburua jabetza intelektual edo industrialeko eskubidez batez babestutako produktuak garatu edo eskuragarri jartzea bada, kontratistak Administrazio kontratatzaileari lagako dio.

Hamahirugarrena. Kontratuaren izaera. Kontratu honek administratibo izaera du eta administrazioak izango dituen eskumenak ondorengoak: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sor litzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko interesak direla medio hura aldatzea eta, hura etetea adostea eta horren ondorioak zehaztea. Hori guztiori, betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta bertako Araudian ezarritako baldintza eta ondorioen barruan eta horien arabera.

Hamalauugarrena. Araubidea. Kontratu honetan ez aurreikusitakoa, azaroaren 14ko 3/2011 Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legean Testu Bateratuan, nahiz Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzeko 817/2009 Errege Dekretuan, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da eta Herri Administrazioen kontratuetan aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera jardungo da. Zuzenbide pribatua, aipatutako arauak falta badira bakarrik aplikatuko da.

Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek kontratu hau bikoizturik sinatu dute, goiburuan aipatutako data eta lekuan.

Beasain Udalaren aldetik

SABAI ARKITEKTOAK, S.L.P., Kontratistaren aldetik

Sinatua: AITOR ALDASORO ITURBE

Sinatua: AGUSTIN ERREA OYARZABAL

